

EVO ETA LITIOA

EDO NOLA BOLIVIA HARRAPATU DUEN AUTO ELEKTRIKOAREN MADARIKAZIOAK

Berri agentziek oihukatu zuten 2019ko azaroaren 12an: “Nobel saria eman diete litio-ioizko baterien asmatzaileei, larrialdi klimatiko betean”. Bi egun lehenago, azaroaren 10ean, Evo Morales lehendakariak dimisioa eman eta ihes egin behar izan zuen, eskuinak kaleetako liskarrez hasi ostean, poliziak eta armadak borobildutako estatu kolpearen ondorioz. Litioak bakarrik ez zuen eragingo ezker indigenistaren porrota, baina hura gabe ere ezin da ulertu.

JENOFA BERTHOKOIRIGOIN

Kimika atalerako 2019ko Nobel Sariak ohoratu zituen John Goodenough iparramerikarra, Stanley Whittingham britainiarra eta Akira Yoshino japoniarra, mundu osoko *smartphone* eta auto elektrikoaren arima den bat eria sortu izanagatik. “Klimaren larrialdiaren gaur eguneko testuinguruan, asmakizun horrek onura handiak ekarri dizkio gizadiari”, esan zuen epaimahaiak. “Gure egunerokoa litio-ioizko bateriaren mende dago, izan sakelako telefono, ordenadore, auto hibrido edo elektriko”.

Vijay Prashad intelektual eta ekintzaile indiarrak “Evoren ondoren, litioaren gaiak itzal luzea dauka Bolivian” analisia plazaratu du *Counterpunch* ezkerreko aldizkarian, urrea balio duen metal berria eta faxismoaren kolpea lotuz. Prashaden arabera, azken urteotan Bolivia ahalegindu da inbertsioak erakartzen, bere litio erreserbak ustiatzeko etekinak bertan geratzeko moduan. Moralesen lehendakariorde Alvaro Garcia Linerak esan zuenez, litioa izango delako “mundua mugiaraziko duen erregaia”. Alegia, planeta osoko litio erreserba ezagunen hiru laurdenak bere lurzoruan dauzkan herrialdea txirotasunetik ateratzeko adina aberastasunen jabe zela Bolivia, baldintza zorrotzak jartzen baldin bazikion bere ustiatzeari.

Morales lehendakariak garbi adierazi zuen litioaren negozioan parte hartu nahi zuten atzerritarrek derrigor egin beharko zutela Comibol meatzaritza

konpainia boliviarrarekin eta Yacimientos de Litio Bolivianorekin (YLB) batean. Moralesen gobernuak eten egin zizkien kontratuak meatzaritako korporazio handi gehienei, hala nola, Glencore, Jindal Steel & Power, Anglo-Argentine Pan American Energy eta Trimetals Mining erraldoiei. Nazionalizazio politika horiengatik, baina baita Boliviako litio erreserbak ustiatzeko arazo teknikoengatik ere, alde egin beharrean aurkitu ziren Eramet frantsesa, FMC estatubatuarra eta Posco hegokorearra ere; Argentinara jo zuten litio bila. Salbuespen moduan, Moralesen agintealdiaren azken urtean, ACI System alemaniarrekin sinatu zuten akordioa, Salar de Uyuni eskualdeko litioa ustiatzeko, baina herritarren haserre eta liskarrek atzera eginarazi eta Moralesek dimititu baino astebete lehenago bertan behera utzi zuen akordioa.

Mendebaldeko konpainiekin adostu ezinezko negozio baldintzak Txinako enpresekin elkartuz adostu zituzten boliviarrak. Prashaden analisisian, “honekin arriskutan sartu zen Morales, Mendebaldeak eta Txinak daramaten Gerra Hotz berrian sartu zuelako muturra. Moralesen kontrako kolpea ezin da ulertu talka hori kontutan hartu barik”. Txinako TBEA Group eta China Machinery Engineeringek tratu berriak sinatu zituzten YLBrekin. Tianqi Lithium Group ere, ordurako Argentinan ari zena, YLBrekin elkarlanean hastekotan zen. “Meatzaritzako multinazional nagusiek

–amaitu du Vijay Prashadek– ezin zuten onartu litioa eskuratzeko negoziarako itun sozial berri bat. Bai Tesla (AEB) eta bai Pure Energy Minerals (Kanada) biek zeukaten Boliviako litioan esku hartzeko interes handia. Kolpearen ondoren, Teslaren akzioek tximistaren abiadan egin zuten gora”.

BASAMORTUAK BAZUEN ALTXORRA

Txile, Argentina, Peru eta Boliviak bat egiten duten eskualde horretan –orain arte *litioaren triangela* deituan– dau den korapilo geopolitikoak aztertu ditu Marca Abya Yala aldizkari digital ezker-tiarrak, “Boliviako estatu kolpearen geopolitika: litioa, gasa, ura eta ozeanoen arteko korridorea” analisi zehatzean. Funtsean, munduko litio erreserba guztien %85 dago triangeluko basamortu horietan. Txile da gaur esportatzaile nagusi, baina erreserba handienak Boliviak dauzka, munduko ia %70 Salar de Uyuni laku idortuan, 21 milioi tona. Munduko bateria ekoizle handienak eta horien kontsumitzaile nagusi diren auto ekoizleak harrapazka baitabilta bere bila, litio karbonato tona Txinan 13.000 dolar pagatzera iritsi dira. Eta baterien merkaturua 2025a bitartean hirukoiztera iritsiko dela diote zenbait adituk.

Berrikitan metal preziatua aurkitu da Perun ere eta triangela baina *litioaren laukia* hasi dira aipatzen. Historian zehar nazionalismoz mozorrotu arren, oinarrian natur baliabideengatik ziren gerra bat baino gehiago eduki dituzte



GARATZE ITXAROPENA

IRUDIKATZEKO, LITIO
KARBONATOS BETETAKO ONTZI
BAT ERAKUTSI ZUEN EVO
MORALESEK 2009AN, MINERAL
HORI EKOIZTEKO BOLIVIAK ERAIKI
ZUEN LEHENBIZIKO LANTOKIAN.

herrialdeok. Etorkizunari begira tirabira horiek berriro handitu daitezke, Marca Abya Yala-ren analisiaren arabera. Lis-karretarako fronte ugari dauzkate gaur ere zabalik. Adibidez, Txilek eta Boliviak Silala ibaiaren urak norenak diren eztabaida Nazioarteko Justizia Auzitegira eraman dute. Boliviak jarraitzen du Txileri Ozeano Barerako sarbidea eskatzen, ehun urtez goiti dirauen disputan. Baina AEBek oso hurbiletik eta goitik kontrolatzen dituzte denen mugimenduak.

Yankiek lehendik baldin bazeuzkaten base militarrik Paraguai, Txile eta Perun, Mauricio Macrik onartu zuen 2018an AEBetako armadak lau berri eraikitzea Argentinan, horietako bat Neuquen hirian, litioa ustiatzen ari diren Vaca Muerta eremutik hurbil. Neoliberalen egunkari maiteenetakoa den *Financial Times*-ek 2018ko maiatzeko tituluari ipini zuen

moduan, "Auto elektrikoaren geopolitika iskanbilatsua izango da". Henry Sandersonek laburbildu zuenez, "petrolioak garrantzia nagusia eduki du joan diren 100 urteotako geopolitikan, Mendebaldeko potentziak eramanez Ekialde Hurbilarekiko menpekotasun zoritxarreko batera. Baina oker dago uste duena energia berriztagarriak nagusi izango diren etorkizun batean tira-bira geopolitikoak mirariz bezala desagertuko direla. Haize-errotek bezala, litio-ioizko bateriek behar dituzte lehengai asko, horiek edukitzeagatik bedekatuak edo madarikatuak dauden herrialdeetatik ekarri beharrekoak". Bai, natur baliabide handiegiak edukitzea madarikazio gertatzen da. Ikusi zenbat gerra eta zenbat milioika hil, zauritu eta iheslari nozitzen dituen Kongok, munduak daukan kobaltoaren erdia bere lurzoruan edukitzea-

gatik. Kobretan aberatsak izateak eragin ditzakeen kalamitateak ongi ezagutu dituzte Txilen edo Bolivian... baina ez da esaten laster dena elektriko bihurtzekotan, 1900etik planetak ekoiztutako kobreaken erdia adina nonbaitetik atera beharko dela.

"Litioari dagokionez -zioen *Financial Times*-ek- auto elektrikoaren etorrerak zakartu egingo du Txinarekiko tira-bira. Pekinek sekulako apustua egin du energia garbietan. Baina ez pentsa Txinari debalde utziko diotenik auto elektrikoentzako ezinbestekoak diren metalak eskuratzen. AEBetako administrazioak ezagutarazi berri du bere ekonomiarentzako eta segurtasun nazionalarentzako kritikotzat jotzen dituen 35 mineralen zerrenda, eta tartean daude litioa eta kobaltoa". Horra zampaketa berriztagarria. ●

**ZINKUNEGI
OPTIKA**

Hernani 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com

f t